

LANA DUINTASUNEZ

DENBORA: 4 ordu

IKASKETA - JARDUERAK

0 LANA DUINTASUNEZ

Helburua: Lan kontzeptuaz hausnartzea. Pertsona guztiek duintasunez bizitzeko funtsezko premia batzuk ditugula aitortzea.

Deskripzioa: Azaleko marrazkietan abiapuntua hartuz, jardueri buruzko elkarrizketa egingo da.

Orientabideak: Elkarrizketaren bitartez, neska-mutilek zein pertsona nagusiek etxean zein etxetik kanpo egiten dituzten beste jarduera batzuk aipatuko dira. Arbelean idatziko dira denak, eta ondoren elkarrizketa abiatuko da jarduera horiek lana, jolasa edo aisialdia diren bereizteko. Saiatu argi uzten: eskolan egiten den lana "gure lana" da.

Kontuan hartu: lan batzuk boluntarioak edo etxeakoak dira, eta denen onerako egiten dira.

Beste puntu batzuk: Lan guztiak garrantzitsuak al dira? Zergatik? Zeinek egiten dituzte? Zertarako lan egiten dugu?

Aldi berean, lan ordainduak eta ordaindu gabeak bereizi. Ondorioa: lan ordainduak bizitzeko behar ditugun ondasunak eta zerbitzuak erosteko balio du. Bizitzeko funtsezkoak diren premiak bereizi: elikadura, etxebizitza, hezkuntza, osasuna, ingurumen osasungarria...

1 LANGILEEK ESKUBIDEAK DITUZTE

Helburua: Nazioartean aitortutako Lan-Eskubide batzuk ezagutzea.

Deskripzioa: Hasteko, gaiaren berri emango da, eta galdera bat egingo da: ba al dira lan-eskubideak? Lan-eskubideak babesteko mekanismoak zeintzuk diren azalduko da: Giza Eskubideen aldeko Deklarazio unibertsala, Nazioarteko Lan-Erakundea (OIT), lege nazionalak. Ondoren, inkesta bat emango zaie familiakoei eramateko. Inkestak bete ondoren, hustu eta lan-arazozen zerrenda bat aterako da. "Munduak konektatzen" delakoan izen emanda badaude, web orritik har daiteke jarduera hau egiteko inkesta.

Orientabideak: Langileen Eskubideak ezagutu, eta ohartu eskubide horiek ez direla Hegoan bakarrik urratzen. Gure herrian pertsona askok ez dituzte lan-baldintza asegarriak edo justuak: langabezia, lan-baldintza injustuak, kontratu prekarioak, gutxieneko soldatak. Kolektibo batzuk bereziki ahulak dira: inmigranteak, emakumeak, gazteak, 45 urtetik gorakoak, batzuetan funtsezko premiak bizitzeko ere iristen ez diren pentsioetatik bizi diren jubilatuak, etab.

2 2. DUINTASUNEZ LAN EGITEKO ESKUBIDEA

Helburua: Jolas baten bidez, gaur egungo merkataritza-sistema barruko lan-harremanetan dagoen botere-erlazioak antzematea. Injustizia-egoerak pairatzen dituzten Hegoko langileen egoeraz jabetzea.

Deskripzioa: Bosna edo seinako taldeak egingo dira, eta bakoitza bere aldetik jolastuko dira. Istorioa irakurri da, eta ondoren, talde bakoitzak erabaki bat hartu beharko du arazoari buruz. Irakasleak denbora banatuko du, eta azterketa egiteko elementu berriak sartuko ditu. Lehen testua irakurri eta 10 minutu utziko ditu eztabaida egiteko. Gauza bera bigarren eta hirugarren testuekin, baina 5 minutu bakarrik utziz eztabaidarako. Azkenean, denen arteko batzara egingo da, erantzunak eta jolasean sortu diren arazoak jasotzeko.

Orientabideak: Kontuan hartu jolasa dela eta bere arauak dituela. Errealismoa garrantzitsua da, eta bromak alde batera utzi behar dira.

Jolasak eta azkeneko galderek enpresa handien boterea aztertzeke balio dute, baina garrantzitsua da ohartzea enpresa handiak ez direla erantzukizuna daukaten bakarrik, gobernuak ere bere erantzukizuna baitaukate. Herri aberatsetako gobernuak botereak ematen dien abantailak erabiltzen dituzte, etekin komertzialak lortzeko herri pobreen kontura. Bestalde, herri pobreetako gobernuak lehentasuna ematen diete enpresen interesei, langileen eskubideak zaindu ordez.

1. testua:

Abisatuta zaudete: berehala lanera itzultzen ez diren langileak kanporatuak izango dira. Ezinbestekoa da produktiorako. Gainera, ugazabek zuen izenen zerrenda pasatu diete beste makiletako nagusiei. Lan hau galtzen, agian beste inork ez zaituzte kontratatuko. Baina baldintza hauetan lanera itzultzen bazarete, ez duzue ezer lortuko: lana gordetzea bakarrik. Zer erabaki behar duzue?

2. testua:

Lantegiaren ateetan jende-sailak daude, zuen lana egingo duten langile berriak kontratatzeke. Jende honek ez daki zer gertatzen ari den, eta zuek bezala lana behar dute familiei jaten emateko. Zer egin?

3. testua:

Lau egun joan dira greba hasi zenetik. Zuen etxeetan bizpahiru egunetarako jatekoa dago, ez gehiago, eta dirua ere eskas...

Ugazaben mezulariak azken hitza eman du. Hauxe erabaki du enpresak: 24 ordutan lanera itzultzen ez bazarete, lantegia itxi egingo da, eta produktzioa beste herri batzuetara eramango dute. Han zuen lantegian baino baxuagoak dira soldatak. Aldiz, lanera itzultzen bazarete, ehuneko %10 igoko da zuen soldata, baia oraingoz ezinezkoa da gainerako baldintzak betetzea.

24 ordu (zuen kasuan, 5 minutu) geratzen dira azken erabakia hartzeko. Zer erabakitzen duzue?

3 JOLASETIK ERREALITATERA

Helburuak: Ezberdintasunez beteriko mundu honetan, galtzaile nagusiak emakumeak direla konturatzea. Hirugarren Munduko herri gehienetan emakumezkoa dela familiako diru-sarreraren oinarria.

Deskripzioa: Makilei buruzko testu bat irakurriko da, kontzeptu bakoitza ondo nabarmenduz. Aurreko jolasean gertatutakoaren antza seinalatu-ko dugu. Ondoren, Hermosa-ren kasua aztertuko da taldeka. Hermosa ez da gai bere familiako premiak asetzeko, lanean ordu asko sartu arren. Talde bakoitzak galderari erantzuten saiatuko da, eta denen artean bilatuko dute konponbidea.

Orientabideak: Lanari lotuta bizi arren, ezin ditu bere familiako funtsezko premiak ase. Ondorioa: aukera matematiko bakarra du Hermosak-k, kontuak ateratzeko: ez gastatzea. Baina zer gastu ken ditzake?: Eskola utzi, medikuaren bisita alboratu. Ez ahaztu, edozein dela aukera, ezpa-taren eta hormaren kontra dago Hermosa.

Beste irtenbide batzuk asmatzera animatu, epe motzekoak ez diren arren, adibidez beste lankideekin batera lan- eta soldata-hobekuntza eskat-zeko antolatzea.

4 BAINA HONEK GUZTIONEK ZURI ZER?

Helburuak: Kontsumitzaileak garenez, modu kritiko eta arduratsuan kontsumitzen badugu, boterea eta eragina izan dezakegula aurkitzea. Parte-hartze sozial eta kolektiboa eragitea, Langileen Eskubideekiko errespetua eta nazioarteko merkataritzaren arau-jokoak aldatu nahi badira.

Deskripzioa: Monografikoan landutako gaietatik abiatuz, jarduera parte-hartzaileak eta Langileen Eskubideen errespetua eta nazioarteko mer-kataritzaren arauen aldaketa ekarriko duten ekimenak bultzatu. Abian dauden kanpainei buruko informazioa jaso, eta nola kolaboratu erabaki. Aldi beran, ohiz erosten dituzten produktuen etiketak begira ditzakete, eta nolako lan-baldintzatan fabrikatuak izan diren ikasi.

Orientabideak: Monografikoan egindako lana hausnartu ondoren, pertsona guztien eskubideak babestu, modu arduratsuan kontsumitu eta nazioarteko merkataritzaren arau-jokoak zein Langileen Eskubideen errespetua eragingo dituzten ekintza zehatz batzuk proposatuko dira.



GAUZA ASKO EGIN DITZAKEZUE BESTE PERTSONA BATZUEKIN BATERA MILIOIKA LANGILEEN EGOERA ALDA DADIN

Intermón Oxfam-en "Munduak konektatzen" eskolarteko komunikazio-inguruan parte hartzera animatzen zaituztegu. Zure ikasgelako kideekin batera, zure inguruko langileen egoerari buruzko inkesta bat betetzera gonbidatzen zaituztegu, beste eskolekin batera sor daitezkeen arazoak konpontzera eta soluziobideak proposatzera.

Ondoko web orria kontsultatu: <http://www.intremonoxfam.org/conectandomundos>. Hor aurkituko duzu Lehen Mailako Hezkuntzako hiruga-rren ziklorako proposamen zehatza.

LMHko 3. ZIKLOA

LANA DUINTASUNEZ



LANQILEEK ESKUBIDEAK DITUZTE

- TPertsona orok du lan egiteko eta libreki lana aukeratzeko eskubidea.
- Pertsona orok du lan-baldintza justu eta asegarriak izateko eskubidea.
- Pertsona orok du familia osoarentzat bizitza duina eskainiko duen soldata justua izateko eskubidea.
- Pertsona orok du gizarte-segurantza edukitzeko eskubidea, desenpleguan, gaixotasunean edota zahartzaroan.
- Pertsona orok du sindikatuak sortu eta kide izateko eskubidea.
- Pertsona orok du atseden hartzeko eskubidea, denbora libre izatekoa, lan-jarduera arrazongarria eta ordaindutako oporrak izateko eskubidea.
- Debekaturik daude behartutako lanak, eta lan egiteko gutxieneko adina badago.



Iruzkindu eskubide hauek zure familiarekin eta osatu ondoko inkesta:

Elkarrizketatua:

adina:

Zure ustez, eskubide hauek denak errespetatzen al dira?

Erantzuna ezezkoa bada, emazkidazu eskubide hauek nola betetzen ez diren adibideak.

OHARRA:

"Munduak konektatzen" programan parte hartzen baduzu, sar zaitez sarean:
www.IntermonOxfam.org/conectandomundos, eta erabili han aurkituko duzun inkesta.

DUINTASUNEZ LAN EGITEKO ESKUBIDEA

Ehungintza-lantegi bateko langileak zarete. Oso zaila izan da enplegu hori lortzea, San Salvador-en jende asko baitago langabezian.

Egiten duzuen arropa European eta Ameriketako Estatu Batuetan saltzen da, oso marka ezaguneko etiketekin.

Hauek dira zuen lan-ordutegiak:

Astelehenetik ostegunera 6:45etik 19ra, eta larunbatetan 6:45etik 14:00etara.

Egunotan elastikoak josten ari zarete. Zuetako bakoitzak jostura bat egiten dio elastikoari. 250 elastiko egiten dira orduko. Oso arin lan egin behar duzue, eta hutsegiterik gabe: jostura bat eta beste bat, burua makinatik altxatu gabe. Erabat amaitu gabe dauden jantziak ez dira onartzen, eta zuen soldatatik kentzen zaizue.



Egun batzuetan ezin duzue helburua bete eta ordu gehiago lan egin behar dituzue, baina ordaindu gabe gehienetan.

Bestalde, ordaintzen dizuten soldata ez da nahikoa familiaren funtsezko premiak betetzeko. Lantegiko lan-baldintzak ez dira oso onak; komunak eskasak dira, eta bero handiegia egiten du ia urte osoan, ez baitago haizagailurik. Norbait gaixo jartzen bada eta hiru egunetan huts egiten badu, kanpora joango da zuzenean.

Beste esperientzia batzuetatik ikasi duzue banakako protestak gutxi balio izaten dutela eta enpresak kanporatu egiten dituela konforme ez daudenak, jende berria kontratatuz.

Horregatik, oraingoz, ahalegin handia eginez, langileen elkarte bat sortu duzue. Optimistak zarete, langileen %80k bertan parte hartuko dutelako.

Azkeneko batzarrean greba egitea erabaki duzue, eta ugazaben ordezkari bat mezu bat ekartzera etorri da zuengana: enpresak elastiko-kopuru handi bat egin behar du ahalbait arinen Europako multinazional batentzat. Eskaria bi egunetan ez bada betetzen, Europako enpresa horrek ez dizkio elastikoak erosiko zuen lantegiari. Mezulariak dio berehala lanean hasten direnek ez dutela zigorrik izango. Eskaria berehala egiten bada, enpresa prest dago soldata-hobekuntzei buruz hitz egiten hasteko. Beste eskakizunei buruz, deus ez.

Mezularia joan denean, zer egin eztabaidatzen hasi zarete. Batzuek mesfidantza dute ugazaben aginduekiko. Beste batzuen iritziz, amarrua da elastikoak berehala egiteko. Batzuek diote onena berriro lanean hastea dela. Erabaki bat hartu beharra dago. Zein da zure iritzia?

Nola sentitu zara jolasean?

Arazoa modu egokian konpondu al duzue? Zergatik?

Justua al da azken emaitza? Zergatik?

Zertan dute antza jolas honek eta errealitateak?



Ba al dakizue zer den *makila* bat?

Makila piezak muntatzen dituen enpresa bat da, azken produktua lantzen duena. Teknologia gutxi eskatzen du eta lan-esku ikaragarria. Makilak Iparreko kontratista batentzat lan egiten du, eta berak jartzen ditu lehengaia zein elkarlotzeko piezak.

Makilak "zona frankoetan" kokatzen dira, hau da Hegoko gobernuek sortutako industrialdeetan, multinazionalen inbertsioak erakartzeko. Horretarako, gobernuek erraztasun ekonomiko handiak ematen dizkiete enpresei: enpresek ez dute zergarik ordaintzen, dirua erraz samar atera dezakete herritik eta azpiegituraren eta tokiko zerbitzuen jabe dira.

Makiletan emakume gazteek lan egiten dute bereziki, prestakuntza eskasa dutenak beren lan-eskubideak ezagutu eta defendenditzeko. Askok landa-guneetatik datoz. Enpresarioek gizonak baino errazago kontratatzen dituzte emakumeak, gutxiago kobratzen baitute. Bakarrik dauden emakumeak edo seme-alaba asko dituzten amak hobesten dituzte, horrela presio handiagoa egingo baitiote, ordu gehiago lan egin ditzaten.



Hermosa-ren kasua

Hermosa hiru seme-alaba dituen ama ezkongabea da, eta El Salvador-eko arropa-fabrika batean lan egiten du, Adidas, Puma eta Nike-rentzat elastikoak egiten. 2000. urteko hasieran, eguneko diru-sarrerara eta irteerei buruz galdetu zitzaion. Hauek dira emaitzak:



Joan-etorria autobusez egunero, lanerako	1,14 \$
Gosaria eta janaria	2,28 \$
Afaria berarentzat eta seme-alabentzat	1,95 \$
Etxe partekatuaren alokairua	1,68 \$
Gasa eta elektrizitatea	0,63 \$
OROTARA	7,68 \$

Gainer, hiru seme-alaben eskolako gastuak ordaindu behar ditu (5,57 \$ astean), eta gastu bereziak, adibidez oinetakoak (11-17\$ pareak) eta gastu medikoak (klinika publikoari bisitak, 3,43\$ balio ditu).

Hermosa-k ahal duen guztia lan egiten du, 12 ordu egunero, eta orduko 0,6\$ jasotzen ditu; hau da, 7,2\$ egunean. Goizeko 4:30etan jaikitzen da eta 20:15etan itzultzen da etxera.

Zer egin beharko luke Hermosa-k kontuak berdintzeko?

BAINA... HONEK GUZTIONEK ZURI ZER?

Iparreko eta Hegoko langile askoren lan-egoera ikusi ondoren, agian galdera hau egingo diozu zure buruari

Zuk egiteko garrantzitsua daukazu lan-merkatu horren baitan:

KONTSUMITZAILE MODURA

- Bidezko Merkataritza eta Kontsumo Arduratsua praktikatzea.
- Lan-baldintza injustuak erantsita dauzkaten produktuak ez kontsumitzea.
- Ingurumenaren kalterako ez diren produktuak erostea.

LANGILE MODURA

- CLangile guztiei zor zaizkien eskubide guztiak ezagutzea.
- Lan-eskubideak urratzen diren egoerak identifikatu eta komunikabide, sindikatu eta langileen eskubideen babeserako diren beste erakundeen aurrean salatzea.
- Sindikatuek langileen alde egiten dituzten ekintzaz jabetu eta ezagutzera eman: formakuntza-ikastaroak, lege-aholkularitza, etab.



Ikertu gizarteko mobilizazio-kanpaina hauei buruz:


Arropa Garbia (www.pangea.org/ropalimpia)
Merkatarita Justiziaz (www.comercioconjusticia.com)




Talde txikitan bildurik, kanpaina horiek zer diren, nori zuzentzen zaizkien, zer lortu duten, nola parte hartu, etab. Eta edukiak horma-irudi handi batean azaldu.

ETA ZER EGIN DEZAKEGU DUGU GUK?

Intermon Oxfam-en Eskolako esku-hartze telematikorako proposamena



conectando_mundos



Arauk alda daitezke, zure eskolak

MUNDUAK KONEKTATZEN programan parte har dezake.

www.conectandomundos.org